

Berotan handi, hotzetan txiki

*Beroa egiten duen egunetan, zure etxea, ohea, autoa, jostailuak... handitu egiten dira? "**Hori galdera tontuna**" pentsatuko du batek baino gehiagok; "Ez, noski! Bero edo hotz egin, aipatutako horien guztien tamaina beti bera da!".*

Hori, ordea, ez da beti gertatzen; gauza batzuk hedatu, handituegiten dira beroarekin, eta uzkuritu edo txikitu hotzarekin.

Adibiderik nahi? Bada, gasa.


Bai, gasa, arnasten dugun hori. Esperimentu erraz baten bidez frogatuko dugu.

Behar dituzu:

- Botila bat
- Puxika bat
- Ur hotzez betetako ontzi bat
- Ur beroz betetako beste bat

Zer egin:

1. Hartu puxika, sar ezazu botilaren ahoan, eta ziurtatu ez dela gelditzen aireak alde egiteko zirrikiturik.
2. Hartu botila eta sartu ur berotan. Ikusi, ikusi nola puzten den puxika!
3. Atera ur berotatik botila, eta sartu ur hotzetan; puztutako puxika hustu egin da!



1.



2.



3.

Zer gertatu da?

Ur berotan sartzean, botila berotu egiten da, eta barruan duen gasa ere bai. Gasa, berotzen denean, hedatu egiten da, eta botilak ezin du gas hori hartu. Orduan, botilatik atera eta puxikapuzten du atera den aireak.

Ur hotzetan sartzean, berriz, kontrakoa gertatzen da: airea hoztu egiten da, hoztean uzkuritu egiten da, eta botilaren barrura itzultzen da.

22. Testuan “hori galdera tontuna” esaldia agertzen da. Zer ideia adierazi nahi du?

- A. Galdera logikoa eta ulergarria dela.
- B. Galdera hori egiten duena tontoa dela.
- C. Fundamenturik gabeko galdera dela.
- D. Erantzuna ezin errazagoa dela.

23. Zer kontatzen du testuak?

- A. Esperimentu bat.
- B. Errezeta bat.
- C. Ipuin bat.
- D. Jarraibide batzuk.

- 24.** Zer behar duzu esperimentu hau egiteko? Adierazi hurrengo enuntziatuak EGIA ala GEZURRA diren.

	E	G
A. Bi botila.		
B. Ur hotzez betetako puxika bat.		
C. Puxika bat.		
D. Ur hotzez betetako botila bat.		
E. Ur beroz betetako ontzi bat.		

- 25.** Nola puzten da puxika?

- A. Botila ur berotan sartuz.
- B. Botila ur berotatik ateraz.
- C. Botila ur hotzetan sartuz.
- D. Botila ur hotzetatik ateraz.

- 26.** Bete hutsuneak laukiko hitzak erabiliz, enuntziatu zuzenak osatzeko:

berotze n	hedatze n	ateratze n
hedatu	atera	puztu

- A. Gasa _____ denean, _____ egiten da.
- B. Gasa _____ denean, botilatik _____ egiten da.
- C. Gasa botilatik _____ denean, puxika _____ egiten da.

- 27.** Zergatik da esperimentu honen izenburua "Berotan handi, hotzetan txiki"?

.....

.....

28. Esperimentu hau:

- A. Umeek egin ahal dute.
- B. Helduek bakarrik egin ahal dute.
- C. Nahiko arriskutsua da.
- D. Egiteko oso zaila da.

